

**Hezkuntza publikoan  
lan baldintzak hobetu.**  
Hemen eta orain erabakita.

**Prentsa oharra:**  
**Urtarrilak 29ko greba balorazioa**

## **Gaur ere Haurreskolak Partzuergoko grebak oso jarraipen zabala izan du, atzokoaren parekoa**

LAB, STEILAS eta ELA sindikatuok deitutako **grebak bigarren egunez %85etik gorako jarraipena** izan du.

Atzo Eibarren burutu genuen manifestazioan ehunka haur hezitzaile eta kudeaketa alorreko langile bildu ginen. Gaur beste horrenbeste bildu gara Bilbo, Donostia eta Gasteizko Hezkuntza ordezkarietan egindako elkarretarazteetan.

Beste behin ere, **salatzekoa da Eusko Jaurlaritzak ezarritako gehiegizko gutxieneko zerbitzuak** direla eta hamarnaka haur hezitzaile **greba eskubidea ukatu** zaiela; batez ere Haurreskola txikietakoei eta, ondorioz, greba bera baldintzatua geratzen dela.

Bi greba egun hauetan **16 urtez hitzarmena eguneratu gabe** dagoela salatu dugu. Lan zamak arintzea, gazteberritze plana adostea, enplegu publikoa kontsolidatu eta bermatzea, eros ahalmena berreskuratzea, lan osasuna zein euskara eta hezkidetzaren bermatzeko neurriak proposatzeko garaia dela argi adierazi dugu.

Aldarrikapen hauekiko erantzunik ez balego, **grebetan jarraitzeko indarra daukagula** ozen esaten dugu.


Beraz, **Haurreskolak Partzuergoari** grebak desaktibatzekeo estrategiak alboratzeko eta eskaera horiei erantzungo dieten **proposamenak egiteko eskatzen diogu**. Hezkuntza publikoa indartzeko ezinbestekoa da inbertsioa handitu, baliabidez hornitu eta lan baldintzak hobetzea.

1.500 haur hezitzaile eta kudeaketa alorreko langileak daude gaurko grebara deituak. Aipagarria da gaur ere hainbat eta **hainbat haurreskolek %100ean greba babestu** izana, esaterako:

- **Araba:** Gasteizko Aranbizkarra, Henrike Knörr, Arana, Agurain eta Dulantzi
- **Bizkaia:** Bilboko Zamakola eta Arangoiti, Durango eta Getxo
- **Gipuzkoa:** Donostiako Loiola, Villabona eta Eibarko Arrateko Andra Mari

Greba arrakastatsuak izan dira **"Lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita!"** lelopean. Adostasunik lortu ezean jarraipena emango diogu otsailak 12rako eta 13rako deitutako greba deialdiei ere.

Hezkuntza publikoko irakasleek hasitako **greba dinamika** eta haurreskoletako langileek segitu duguna, **bihar eta etzi jarraipena izango du Hezkuntza saileko sukalde eta garbiketa kolektiboan**. Hemendik agur bero bat bidali nahi diegu.



**Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.**

Decididas aquí y ahora.

**Nota de prensa:**

**Valoración de la huelga del 29 de enero**

## **La huelga en el Consorcio Haurreskolak ha tenido un amplio seguimiento, similar al de ayer**

La huelga convocada por LAB, STEILAS y ELA ha tenido **por segundo día consecutivo un seguimiento superior al 85%**.

Ayer en Eibar nos manifestamos cientos de educadoras y personal del área de gestión. Hoy también nos hemos reunido en las concentraciones convocadas en las Delegaciones de Educación de Bilbao, Donostia y Vitoria-Gasteiz.

Una vez más, debido a los **abusivos servicios mínimos** establecidos por el Gobierno Vasco, se ha **denegado el derecho de huelga a decenas de educadoras y educadores infantiles**; sobre todo al personal de las Haurreskolas pequeñas, por lo que la huelga en sí queda condicionada.

En estos dos días de huelga, **hemos denunciado que hace 16 años que el convenio caducó**. Hemos dicho claramente que es hora de proponer medidas para aliviar las cargas laborales, medidas para rejuvenecer la plantilla, para consolidar y garantizar el empleo público, para recuperar el poder adquisitivo, para garantizar tanto la salud laboral, como el euskera y la coeducación.

Y, si no hubiera respuesta a estas reivindicaciones, **tenemos fuerza suficiente para continuar con las huelgas**. Por lo tanto, **pedimos al Consorcio Haurreskolak y al Departamento de Educación** que abandonen las estrategias para desactivar las huelgas y **que hagan propuestas que respondan a las demandas anteriormente mencionadas**. Para reforzar la educación pública es imprescindible aumentar la inversión, dotarla de recursos y mejorar las condiciones laborales.

1.500 educadoras infantiles y trabajadoras del área de gestión están llamadas a la huelga de hoy. Es destacable que hoy también **numerosas haurreskolas hayan apoyado al 100% la huelga**, por ejemplo:

- **Araba:** En Gasteiz Aranbizkarra, Henrike Knörr, Arana, en Agurain y en Alegría-Dulantzi.
- **Bizkaia:** En Bilbao Zamakola y Arangoiti, en Durango y en Getxo.
- **Gipuzkoa:** En Donostia Loiola, Villabona y en Eibar Arrateko Andra Mari.

Las huelgas bajo el lema **“¡Mejora de las condiciones laborales, decidido aquí y ahora!”** han sido un éxito. En caso de no llegar a un acuerdo, les daremos continuidad en las huelgas convocadas para los días 12 y 13 de febrero.

La **dinámica de huelga** iniciada por el profesorado de la educación pública y a la que en estos dos días hemos dado continuidad las trabajadoras de haurreskolak, **mañana y pasado seguirá con las huelgas llamadas en el colectivo de cocina y limpieza del departamento de Educación**. Desde aquí les enviamos mucho ánimo.

**LAB**

**steilas**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA